

Jendea ezagutzen duzu...

ZU, Neto, ¿eta hori zer da?", galdetzen diot, harri-pilo handi bat seinalatzen dudalarik, hilobi baten antzerakoa berau, eta bide bien gurutzean dagoena. Begiratzen nau. Gero begirada alderatzen du eta harriei begira geratzen da. Gero ez du inorantz begiratzen; minutu bat pasatzen du mugitu gabe. Ez dakit zer egin, berriro galdetu edo batetorri bere isiltsunaz eta ibiltzen jarraitu, bapatean niregana bueltatu eta astiro erantzuten didanean: "Hor, gurutze bat zegoen".

Berriro izan da erantzun harrigarria eta zer esan nahi izango zuen, zergatik esango zuen pentsatzen uzten gaitu..... Benetan zaila gertatzen ari zaigula Sierra Madre Occidental delako honetan gidarilanak egiten dizkiguten bertako hiru hauekin komunikatzea. Oztopoak ez dautza hizkuntz amankomunean, gertatzen dena da hitzek esangura desberdina dutela guztiz desberdinak diren kultura, ezagumendu eta balio-sistemetatik bait gatoz. Ez ditugu ulertzen eta beraiek ere ezin gaituzte ulertu. Tarahumara indio hauei beste planeta batetako gizakiak irudituko gataizkie, eta seguru asko gauza bera gertatuko zitzaie espedizioetako mendizaleekin elkarbizi behar izatea suertatu zitzaie sherpa, banti, quechua, dani edo munduko bestelako herri askori.

Egoerak artegatzen gaitu beraiekin bat egiteko gogoaz bait gentozen. Nahi genuen beraiekin topaketa bat lortzea eta ez beren ingurutik pasatzea soilik. Zeren, soziologoak zioen bezala, "topaketak autoerrebeldiazko dialektika ezartzen bait du: alde bietarik bakoitzak berezko kultura azaltzen da. Eta besteekin topatzeak, diferentziari eskerrak hain zuzen, gutariko bakoitza zer garen agerteratzen digu".

Mendizaleak teorikoki topaketa hau beste turismo-era askok baino hobeto permititu diezaguke. Beste gizakiekiko, beste kulturekiko helbidea zabaltzen digu, elkarrizketa baketsu eta adiskidetsurako aukera opatzen digularik, herri askorentzat lehenago sekula esistitu ez zen aukera. Horretarako gertatu genuen bidaia hau, aldamenen genuen literatura berrikusiz, haien kultura, folklorea, erlijioa eta baita poesian ere sartzen aritu ginelarik.

Baina arazoa gure kirol ekintza honen azpialdean dago sustraiturik. Mendizaleak pasoko hegaztiak bezala konportatzen gara, azken finean ez gara oportetaren dauden mendebaldar batzu baino. Gure kontaktuaren laburtasunak mugatu egiten ditu gehienetan "ura eta gatza konpartitzeak" sortzen duen aberastasun osoaz eta beren ohizko kontzeptioetara loturiko zerbait sakratua bailitza herri askok opatzen duen abegikortasunaz baliatzeko posibilitateak.

Zapuzte-zentzazioa geratzen zaigu bizgarri horiek hartu eta erantzun ezin diegulako. Gure irtenaldiaren kirol helburua osotu gabe geratzen da elkar aberasteko posibilitate horri hurbiltzea baino ez dugula lortu somatzen dugunean. Gure kasuan, unibertsalagoak egin gaitzen posibilitatea, gure buruak bestelako kulturatako jendekiko elkarraldatzeak markaturik izan daitezen utziz. Beren kasuan, gure aldetik negatiboak, kontsumokeriazkoak, zarrastelkeriazkoak, beren baloreak suntsitzeko edo beren sinesmenak nahasteko bizipenik ez, baizik eta erremediogabeki bideraturik daudeneko moderno-tasuneranzko aurrerabide azkar horretan lagunduko dieten bizipenak bereganatuz. Lorturiko harreman egonkor baten adibide paradigmaticoa Sir Edmund Hillaryrena da, sherpen herriaren aurrerabideri betirako lotua.

Conoces gente...

OYE, Neto, ¿y eso qué es?, le pregunto, señalando un gran montón de piedras, como un túmulo, que hay en el cruce de los dos caminos. Me mira. Luego desvía la vista y mira las piedras. Luego no mira a ningún sitio; pasa un minuto largo sin moverse. No sé si volver a preguntarle o conformarme con su silencio y continuar andando, cuando se gira hacia mí y me contesta despacio: "Ahí, había una cruz".

Otra vez ha sido una respuesta sorprendente que nos deja pensando en qué habrá querido decir, en por qué lo habrá dicho... Verdaderamente nos está resultando difícil comunicarnos con estos tres indígenas que nos sirven de guías en la Sierra Madre Occidental. Las dificultades no están en el idioma común sino en el que las palabras tienen un sentido distinto porque partimos de culturas, de conocimientos, de un sistema de valores absolutamente diferente. No les entendemos ni ellos tampoco pueden entendernos. A estos indios tarahumaras tenemos que parecerles como seres de otro planeta, y algo parecido les ha tenido que pasar a los sherpas, los bantis, los quechuas, los danis o cualquiera de esos pueblos del mundo con los que conviven los montañeros en una expedición.

La situación nos inquieta porque evidentemente veníamos con el propósito de encontrarnos con ellos. Pretendíamos conseguir un encuentro y no un pasar a su lado. Porque, como diría el sociólogo, "el encuentro establece una dialéctica de autorevelación: cada una de las dos partes se expresa según su propia cultura. Y el encuentro con los otros nos revela, gracias precisamente a la diferencia, lo que somos cada uno de nosotros".

El alpinismo en teoría puede permitirnos este encuentro mucho mejor que otro tipo de turismo. Nos abre el acceso a otros seres, a

otras culturas, ofreciéndonos una ocasión para el diálogo pacífico y amistoso, ocasión que para muchos pueblos no había existido antes. Para eso habíamos preparado este viaje, repasando la literatura disponible, intentando introducirnos en su cultura, su folklore, su religión, su historia e incluso su poesía.

Pero el problema está enraizado en el fondo de nuestra propia actividad. Los alpinistas nos portamos como aves de paso, no dejamos de ser occidentales de vacaciones. La brevedad de nuestro contacto limita nuestras posibilidades de aprovechar en la mayor parte de los casos la hospitalidad que muchos pueblos ofrecen como algo sagrado ligado a sus concepciones tradicionales, con toda la riqueza que produce ese "compartir el agua y la sal".

Nos queda una sensación de frustración al no poder recoger y responder a estos estímulos. El objetivo deportivo de nuestra salida resulta incompleto cuando percibimos que sólo hemos conseguido aproximarnos a esa posibilidad de enriquecimiento mutuo. Para nosotros, de hacernos más universales, dejándonos marcar por el intercambio con gente de otras culturas. Y para ellos, aportándoles desde nuestro lado, y con un profundo respeto, unas vivencias que no sean negativas, de consumismo, de despilfarro, de destrucción de sus valores o perturbación de sus creencias, sino que les ayuden en esa rápida evolución hacia la modernidad a la que irremediablemente están abocados. El ejemplo paradigmático de relación estable conseguida es Sir Edmund Hillary, enganchado para siempre en el progreso del país de los sherpas.

Txomin Uriarte